

## LETRA GOZOAK ETA EDERRAK

### EDURRA

EDURRA, EDERTASUN OTZ  
Edurra, zuri, samur  
Zuri-otza ez bazina  
ete zintzakez edur?

EDURRA, zerutar uso  
Edurra egalari  
Jarri eizu guztion gain  
soineko zuri hori

OZTU GORROTOEN SUA  
OZTU PEKATU GARRA  
ZURITU LUDI OSOA  
EKARRI ZURE BAKE AGURRA

EDURRA, neguko lore  
Edurra, garbitsun  
Esan aurtan zeru goitik  
guretzat zer dakarzun.

EDURRA, nere gain zagoz  
Edurra, geldl zaitte  
Zuk ni besarkatzen nauzu  
ta nik zu zaitut maite.

### LANAREN GOSEA

Iraultzan, Jauna, gaur dabiltz  
[danak,  
eta iraultza eskatzen dautzut;  
uka naukazu atsegin leunak,  
txaloak bere ukatzen ditut.

Auts jo gura dot okerra dana,  
bakerik ez nik gogor-kerian;  
lagun zakidaz, zeruko Jauna,  
munduak daukan guzur-tokian.

Mundua nai dot jaso, obetu,  
ta lan-min nozu, gizon-miñetan;  
jendea nai dot, beti lagun Zu,  
zeru-min jarri, argi-patsetan.

Irrits bizia doart or-emen,  
entzun itzakaz ase eziñik;  
ta Zuk diñozu: «Ona Ni emen!»  
Giza-goseak naroa pozik.

Igotz

